

BALDINTZAK eta MUGAPENAK

1. Mugikortasun bat egin ahal izateko SICUE programaren barruan ezinbestekoa da UPV/EHUK bitariko hitzarmena sinatuta behar du izan aldez aurretik unean uneko unibertsitatearekin. Ez da eskaririk onartuko aldez aurreko hitzarmenik ez duen unibertsitatearekin trukerik egin nahi bada. Bestalde, NAN edo AIZ agiria izan behar da GAUR aplikazioaren bidez Sicue programarako eskaria egiteko.
2. Ikasleek matrikulatuta egon beharko dute UPV/EHUn, helburuko unibertsitatean egin gura dituen ikasketei dagokien titulazioan, bai mugikortasunerako eskaria egiteko unean, bai mugikortasunean zehar.
3. Ikasleak irakaskuntza sistema behar bezala ezagutzen duela bermatzeko, trukea UPV/EHUn **45** kreditu behar ditu **gainditu** ikasleak eta, mugikortasunerako eskaria egin aurreko ikasturtean gainditu.
4. Gutxien dela, **30** kreditutan egon behar du **matrikulatuta** (bigarren matrikulaldia kontutan hartu gabe).
5. Ikasleak hautatzeko erabiliko den batez besteko nola kalkulatzeko, kontutan hartuko da mugikortasun eskaria egin aurreko ikasturtean dagokion titulazioan ateratako nota, iraileko deialdia barne.
6. Honako hauek dira egonaldien iraupena eta landu beharreko gutxieneko edukiak:
 - **Ikasturte erdia** (5 hilabete): gutxien dela **24 kreditu**.
 - **Ikasturte osoa** (9 hilabete): gutxien dela **45 kreditu**.

Ikasleak ikasketak bukatzeko falta duen kreditu kopurua egondirako eskatzen den gutxienekoa baino txikiagoa bada, kreditu horietarako trukea eskatu ahal izango du nahiz eta gutxienekora ez heldu, betiere, falta dituen kreditu guztietarako egiten badu matrikula eta SICUE akordio akademikoan agertzen badira.

OHARRA: 24 kreditutik behera gelditzen bazaizkio, seihileko mugikortasuna izan dezake, ez urte batekoa.

% 30eko dibertsitate funtzionala edo handiagoa daukaten ikasleek eskaria egin dezakete matrikulako kredituak gutxiagotzeko. Eskariarekin batera jatorrizko unibertsitateko desgaitasunak dituzten pertsonentzako eta aniztasuneko laguntza atalak egindako txostena aurkeztu beharko da. **Ildo horretan, plazen % 5 gordetzen da % 30eko ezgaitasuna edo handiagoa daukaten ikasleentzat.**

Halakoetan, jatorrizko eta helburuko unibertsitateak ahaleginduko dira informazioa ematen, koordinatzen, eta jarraipen ahalik eta egokiena egiten, koordinatzailearen eta

ezgaitasunak dituzten ikasleei laguntza emateko atalen bitartez, ezgaitasunak dituzten ikasleen trukeak ondo joan daitezten. Lehen esan bezala, ikasle talde honek lehen adierazitako kredituak gainditzeko baldintzak bete beharko ditu.

7. Akordio akademikoan sartutako kreditu eta irakasgaiak ikasketak osatzeko nahitaezko curriculumean egon behar dute.

** Arlo honetan, gogoan izan behar da Graduako Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegiko 12. artikulua araberak, ikasturte bakoitzean gehienez ere 60 ECTS kreditu aitortuko direla mugikortasun ekintzengatik*

8. Atzerriko erakundean UPV/EHUK aintzat hartutako ikasketak egin beharko dira, gure unibertsitatean ofizialki aitortutako titulua lortzera bideraturiko ikasketa programaren barruko osagarri moduan.

9. **DEIALDIAK:** Ikasleak helburuko unibertsitateak kasuan kasuko irakasgairako ikasturte horretan eskaintzen duen deialdi kopuru bera izateko eskubidea izango du.

ADI: Ikasleak aukera izango du ezohiko deialdia harreko unibertsitatean edo jatorrizko unibertsitatean egiteko, azken kasu horretan irakasgai baliokiderako egingo lukeen arren ebaluazioa; betiere, akademia arloko koordinatzaileari baimena eskatuta eta harreko unibertsitatea ados badago.

10. **HAUTAZKOAK:** Hautazko irakasgaiak egin ahal izango dira helburuko unibertsitatean jatorrizko unibertsitatearen ikasketa planean egon ez arren, ikasleen espedienteen hautazko gisa jasoko direlarik.

11. **IRAKASGAIK:** Ikasleak bere titulaziokoak ez diren irakasgaiak gehitu ahalko ditu SICUE akordio akademikoan, betiere akordioa eginda duten antzeko titulazio batekoak badira, eta koordinatzaile guztiek baimena eman badute alde aurretik eta Nazioarteko Harremanenetako Bulegoak oniritzia.

12. Inola ere ez da onartuko, modalitatea edozein dela ere, titulua edo zikloa burutzeko behar diren kredituen % 50 baino gehiago UPV/EHUtik kanpo egitea; ez eta titulu edo ziklo osorako ezarritako iraupenaren % 50 baino gehiago UPV/EHUtik kanpo egitea. UPV/EHUtik kanpoko gehieneko egonaldia kalkulatzeko, derrigorrezko praktikak eta karrera amaierako lanak ez dira kontuan hartuko, eta horietarako, beste egonaldi batzuk egin ahalko dira.

13. Inola ere ez dira onartuko UPV/EHUn gaindituta dauden irakasgaiak, eta ezin izango da eskatu harrera unibertsitatean egindako ikasketak irakasgaion ordez onartzeko. Ezin izango dira egin ikasketa planean eskatzen direnak baino kreditu gehiago, irakasgai bateko matrikula egitean kreditu kopurua gainditzen denean izan ezik..

14. **IKASLEA AURKEZTU EZ DEN IRAKASGAIA:** Matrikulatutako irakasgaiak egin ahal izango dira, baldin eta ikaslea azterketara aurkeztu ez bada eta kalifikazioetan "aurkezteke" agertzen bada. Irakasgai horiek jatorrizko unibertsitatekotzat hartuko dira,

bai kalifikazioei dagokienez bai deialdiei dagokienez.

ADI: Sicue programan bigarren hartz gero parte, bigarren horretan ezin izango da eraman lehenengo parte hartzean AURKEZTEKE utzitako irakasgaiak, ez eta gaintu ez zirenak.

15. SUSPENDITUTAKO IRAKASGAIA: Baldin eta ikastegiko barne arautegiaren kontra ez badao eta ikastegiko koordinatzaile akademikoak hala baimentzen badu, lehenago suspenditutako irakasgai bat, gehienez, sartu ahalko da akordio akademikoan. Irakasgai bat baino gehiago sartuz gero, ez da geroago onartuko.

GARRANTZITSUA: Ikasleak bere ikastegian galdetu beharko du zein den barne arautegia eta SUSPENDITUTAKO irakasgai baten zenbat DEIALDI eraman daitezkeen Sicue programara.

16. Ezinbestekoa da ikasleek UPV/EHUren beren ikastegiko mugikortasun-programetako baldintzak ezagutzea, parte-hartzeari eta hautaketari dagokienez.

17. SICUE programan sekula parte hartu ez duten ikasleek lehenengo izango dute titulu berean edo beste batean bigarren egonaldia bat eskatzen dutenen aurrean.

ADI: SICUE programako plazak esleitzen, ez da kontuan hartzen SICUE programatik kanpo egindako mugikortasun programak, ez bada UPV/EHUko ikastegiak berak arautegian irizpide hori zehaztuta daukala.

18. Ikasle berak ezin izango du SICUE truke bat baino gehiago egin unibertsitate berean, ez eta ikasturte berean ere.

19. Ezin har daiteke parte Nazioarteko Harremanen bulegoak gestionatutako bi programatan baino gehiago.

20. Egonaldiak, azterketa garaia barne, jatorrizkoa ez den unibertsitatean egin beharko dira; alegia, beste probintzia eta beste metropoli eskualde bateko campus batean. Beraz, ikasleak goitza aldaketa egin beharko du, egiaztatua.

21. NORAKOAK: Ikasleak gehienez 5 hauta ditzake. Behin Sicue eskaera GAUREn egin ondoren, EZIN dira aldatu norakoak eta horien arteko ordena.

22. PLAZA HUTSAK: Eskatutako norakoetatik bat bera ere eman ez bada, ez dago «BESTE AUKERA BATZUK» hautatzerik bigarren adjudikazioa amaitu ondoren, salbu eta UPV/EHUko ikastegiak berak horretarako baimena ematen badu deialdi honetan.

23. SICUE mugikortasun programetatik kanpo geratzen dira master eta doktoregoko ikasketa planak.

24. Asegurua: Helburuko unibertsitateak eskatu ahal izango dio SICUEko ikasleari, matrikula egiterakoan, egin dezala mugikortasunekoak ez diren ikasleei eskatzen dien aseguru berbera, nahiz eta mugikortasuneko ikaslea izango den.

25. **GOI MAILAKO ETA ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARIAK:** ezinbesteko baldintza da jatorrizko unibertsitateak zehaztutako baldintzak betetzea, eta eskariak epean egitea kontuan izanda aukeran dauden harrera unibertsitateak. Era berean, goi mailako eta errendimendu handiko kirolaria dela egiaztatu beharko du, eta egin duen eskaeraren arrazoia justifikatu

26. **GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN IKASLEAK:** Parte hartzeko, jatorriko unibertsitateko araudiak berak ezinbesteko baldintza gisa ezartzen du eskaera epean egitea eta izan daitezkeen norakoak adieraztea. Era berean, jatorriko unibertsitateak eskatuko du ikasleak genero indarkeriaren biktima dela egiazta dezala, aurkeztutako eskaeraren justifikazio arrazoitua aurkeztuta.

27. **EGONALDIAREN IRAUPENA.** Egonaldiaren iraupena bat etorriko da bitariko hitzarmenean jasotakoarekin.

Deialdi honetan, egonaldia murriztu (ikasturteko osotik ikasturte erdira) edo egonaldia luzatu ahal izango da (ikasturte erditik ikasturte osora), jatorri eta helburuko koordinatzaileak ados egonez gero eta plaza eskatuko zukeen ikasleren bati konparaziozko bidegabekeriarik egin ezean. Nolanahi ere, egonaldiaren murrizpen edo luzapena C inprimakian jasoko da.

Garrantzitsua: UPV/EHUren arautegiak aginduta, SICUE ikasleen trukearen iraupena aldatzeko eskaria onartuko bada, **ezinbesteko baldintza** izango da Nazioarteko Harremanetako bulegoan SICUE **egonaldia luzatu edo laburtzeko inprimakia** aurkeztea, SICUE plaza eman eta hilabeteko epearen barruan. Inprimaki hori GAUR aplikazioko profilean edo webgunean aurkitu ahal da. Inprimakia aurkezteko epea **maiatzaren 15an** amaituko da (egun hori barne).

Ez da egonaldia aldatzeko eskaririk onartuko epez kanpo. Salbuespen gisa, behin mugikortasuna hasita helmugako unibertsitatean, egonaldiaren murrizketa onartu ahalko da baldin eta **idazki** baten bidez justifikatzen bada arrazoia argudiatuz eta **behar den dokumentazioa** aurkeztuz: osasun ziurtagiria, praktiken edo lanen kontratua edo bestelakorik...edo **Akordio Ekonomikoko egonaldia laburtzeko eranskina (C inprimakia)** erantsiz, ikasleak eta bi koordinatzaileek behar bezala beterik. Hala eginez gero, Errektoreordetzak jaso egingo du epez kanpoko eskaera, baldin eta behar bezala justifikaturik badago, eta behin aztertuta, onartu edo atzera botako du.